

# Irten eta kitto!



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**H**ego Euskal Herria, 1986ko martxoaren 12a. Espainiako Estatuako NATOri buruzko erreferendumean lau lurraldeetan hauxe izan zen emaitza: ezezkoa bozkatu zuen %40,9k, baiezkoa %21,5ek eta %34,9ko abstentzioa izan zen. Abstentzioa kontuan hartu gabe, %60ak bozkatu zuen kontra (%68,2 Gipuzkoan, %64,2 Bizkaian, %59,9 Araban eta %52,7 Nafarroan) eta, hala, euskal gizarteak ezezko borobila eman zion aliantza militarrean sartzeari.

Edo, zehatzago esanda, euskal gizarteak aliantzatik irtetearen alde egin zuen, Espainiak ordurako lau urte baitzaramatzen NATOn. UCDko Leopoldo Calvo Sotelo buru zuen espainiar gobernuak 1981eko abenduaren 10ean bozkatu zuen NATOrekin bat egitearen alde -1982ko maiatzaren 30ean indarrean jarriko zena-.

Bozketa hartan PSOEek ezezkoa eman zuen, *OTAN, de entrada no* (NATO, sarreratik ez) hitz jokoa lelotzat erabilia. 1982ko urrian, hauteskunde orokorretan PSOEek gobernu eskuratu zuen, eta kanpaina hartan Felipe Gonzálezek NATOri buruzko erreferenduma egingo zela hitzeman zuen. Ia lau urte eta presio sozial handia behar izan zituen hitza betetzeko, eta, tarte horretan, jatorrizko ezezkoa baiezko irmo bihurtzeko trikimailua gauzatzeko gai izan zen presidentea; Hego Euskal Herrian, Katalunian eta Kanariar Uharteetan soilik irabazi zuen ezezkoak.



ARTURO DELGADO / ARGIA FOTOTEKA

1986ko martxoaren 12an, duela 40 urte, Hego Euskal Herriak ezetz esan zion NATOri, kanpaina luze baten ostean. Irudian, aurreko urtean Donostian egindako manifestazioa.

EAJk, aldiz, NATOn sartzearen aldeko botoa eman zuen 1981eko abendu-ko kongresuko bozketa hartan, baina 1986ko erreferendumaren ateetan agerian geratu zen alderdiaren zatiketa, urte hartan bertan gauzatu zena: Carlos Garaikoetxea ezekoarekin lerratu zen; Xabier Arzalluz, berriz, baiezkoarekin.

Estatuan baiezkoak irabazi zuenean (%56,85arekin) hauexek izan ziren orduko lehendakari Jose Antonio Ardanza-ren hitzak: "Emaitza ona da Espainiarentzat, Europaren parte izatea eta European parte hartzea berretsi delako. Moderni-

taterantz eta demokraziarantz aurrera egiten ari garela adierazten du". Euskal gizarteak erreferendumean lortutako emaitzekin ez ikusiarena egin zuen.

Bere alderdia zatitzen ari zen bitartean, hainbat euskal eragile eta mugimendu (subiranozaleak, ekologistak, antimilitaristak...) batzea lortu zuen kanpaina indartsu eta eraginkorrari entzungor egin zion.

Kanpaina hartako lelo nagusietakoa *NATO ez, irten eta kitto!* izan zen, 40 urtetan gaurkotatzen ez den eta, egun, sekula baino biziago dagoen leloa ●



VOIVODINAKO MUSEOA

## Burdin Aroko sarraski berezia?

Duela 2.800 urteko hobi komun bateko 77 indibiduoren arrastoak aurkitu eta aztertutako Serbian, Karpato inguruetan. *Nature Human Behaviour* aldizkarian argitaratutako emaitzek garbi uzten dute han sarraski bat gertatu zela Burdin Aro goiztiarrean. Baina sarraskiaren ezaugarriak ezohikoak dira gertatzen. Historiau-

rrean gatazken indarkeriaren biktima nagusiak gizonezko helduak zirela uste izan da, gatazkatan parte hartzen zutenak, alegia. Baina, kasu honetan, aztertutako biktima gehienak emakumezkoak eta haurrak dira. Historiaurreko gatazkei buruzko pertzepzioa aldatzeko bidea zabaltzen du horrek ●